

Euskal musika taldeak.mp3

En tol sarmiento taldea, ETS siglez ere ezaguna, Arabako Ekora herrian sortu zen, 2005ean. Ska-rock musika egiten du batez ere, nahiz eta reggae eta punk-rock doinuak ere sartzen dituen.

Belako taldea 2011. urtean sortu zen, Mungian, 80ko hamarkadako new wave estiloin inspiratuta. **Hasiera batean, laukoteak ingelesezko bertsioak egiten zituen, eta lokal** txikietan aritzen zen jotzen. Baina laster aldatu zuten estiloa soinu berriagoetara, post-punka ukitu elektronikoeekin nahasiz. Nahiz eta oso gazteak izan, eta garai hartan album luze bakarra editatu zuten arren (Eurie), jaso zituzten kritika bikainei esker potentzial handiko taldeztat jo zen Euskal Herriko zein Espainiako agertokietan. 2012an, Euskal Irrati Telebistako maketa lehiaketa irabazi zuten, eta Radio 3en hirugarren geratu ziren. Horrek BBK Live festibalean jotzeko aukera eman zien. Abesti gehienak ingelesez egiten badituzte ere, euskaraz ere aritzen dira.

Berri Txarrak taldea 1994an sortu zuten Lekunberriko hiru gaztek, rock estiloko musika egiteko. Hamabi disko, bilduma-lan bat eta dokumental bat argitaratu dituzte. Euskal Herritik kanpo oihartzunik handiena izan duen rock-metal taldea da, eta maitasunetik amorrurainoko sentimenduak jorratu izan ditu. Taldeak etenaldi mugagabea iragarri zuen 2019rako.

Huntza sei gazte gipuzkoarrek osatzen duten musika-taldea da. 2014. urtean sortu zuten, Bilboko unibertsitate giroan. Taldearen lehen agerpena 2016ko martxoaren 8an izan zen: *Harro gaude* kantua plazaratu zuten orduan. Abesti horrekin, oholtza gainera salto egin zuten lehen emakumeak omendu zituzten. Hasiera apal horrek ateak ireki zituzkien jarraian etorri ziren kontzertu eta agerraldiei. 2016ko azaroan, *Aldapan gora* kantuarien bideoklipa kaleratu zuten, eta arrakasta itzela izan zuen. Ska-folk estiloa jotzen dute.

La Basu Bizkaiko Etxebarri herriko rap abeslaria da. Txikitatik hartu zion afizioa bonbo, kutxa eta errimen arteari. 1990eko hamarkadan hasi zen rapeatzen. Raparen munduan Euskal Herrian zegoen emakume bakarrenetakoa zen. Nahiz eta hasieran gaztelaniaz bakarrik abestu, euskara ere erabiltzen du gaur egun. Haren azken diskoak "Gerra" du izena.